# udal aldizkaria

legegintzaldiaren balorazioa

2019KO MARTXOA



3 **Agurra** Saludo
4 **Hirigintza** Urbanismo
6 **Obrak eta herriko mantentze lanak** Obras y mantenimiento urbano
8 **Ingurumena eta Landa Garapena** Medio ambiente y Desarrollo rural
10 **Kirola, Kultura eta Parekidetasuna** Deporte, Cultura e Igualdad
12 **Haurrak eta Gazteak** Infancia y Juventud
14 **Osasuna, Gizarte Ongizatea eta Inmigrazioa** Sanidad, Bienestar Social e Inmigración
16 **Bizikidetza eta Hezkuntza** Convivencia y Educación
20 **Balorazioak** Valoraciones

HARRERA: **943 75 30 43** | UDALTZAINGOA: **udaltzaingoa@soraluze.eus** · **943 75 30 24** | ALKATEA: **alkate@soraluze.eus** · **661 79 86 54**
GIZARTE ZERBITZUAK: **(Ana) gizarte@soraluze.eus** · **943 75 00 56** | **(Irantzu) gizartezer@soraluze.eus** · **943 75 00 54**
LIBURUTEGIA: **liburutegiasoraluze@gmail.com** · **943 75 20 74** | KIROLA / KIROLDEGIA: **kirola@soraluze.eus** · **943 75 24 66**
LUDOTEKA: **ludoteka@soraluze.eus** · **943 25 94 57** · **688 74 02 89** | GAZTELEKUA: **gaztelekua@soraluze.eus** · **688 74 02 89**
HIRIGINTZA: **bulegoteknikoa@soraluze.eus** | IDAZKARITZA / KONTU HARTZAILEA: **idazkaria@soraluze.eus**
HIZKUNTZA POLITIKA, KULTURA, HEZKUNTZA, HAURRAK ETA GAZTEAK: **euskara@soraluze.eus**
PAREKIDETASUNA: **berdintasuna@soraluze.eus** | INGURUGIROA ETA LANDA GARAPENA: **ingurumena.soraluzekoudala@gmail.com**

**SORALUZEKO UDALA**
Santa Ana, 1
20590 Soraluze (Gipuzkoa)
Tel.: 943 75 30 43
udala@soraluze.eus
www.soraluze.eus

Argitaratzailea: **Soraluzeko Udala**
Egilea: **Pil-pileanen komunikazio zerbitzua**
Diseinua: **Pil-pileanen komunikazio zerbitzua**
Argazkiak: **Soraluzeko Udala, Pil-pilean komunikazio zerbitzua eta Fernan Oregi**
Inprimategia: **Gertu Koop.**
Ale kopurua: **2.000**


Patricia Borinaga eta Iker Aldazabal.

Agintaldia amaitzera doa eta momentua da balantzea egiteko. Eta, Udal Gobernua osatzen dugun bi alderdion iritziz, balantzea positiboa da. Esan dezakegu hitzetatik ekintzetara pasatu garela. Beti daude gauzak hobetu litezkeenak, baina uste dugu ezberdinon arteko paktuak ekarri duen aldaketak merezi izan duela, posible egin baititu egonkortasun politikoa eta presupuestarioa Soraluzen.

Agintaldi hau oinarritu da udal azpiegiturak bultzatzeko eta garatzeko eta beste instituzioekiko akordioak lortzeko ahaleginean (Eusko Jaurlaritza, Gizpuzkoako Foru Aldundia...).

Udalerriz gaindiko akordio eta gestioen emaitzak ebidenteak dira eta ondorengo orrialdeotan ematen da euren berri. Garrantzitsua da azpimarratzea agintaldi honetan zehar eskuratu diren baliabide ekonomikoak, dirulaguntza edota laguntza bidez eskuratu direnak, **guztira 2.092.934 euro baino gehiago direla.** Baliabide hauei esker planifikatu eta ejekutatu ahal izan ditugu proiektuak, bakarka garatu ahal ezin izango genituenak, ez genuelako izango gaitasun ekonomiko nahikorik.

Lau urteotan herritarren parte hartzera bideratutako hainbat proiektu jarri dira martxan. Esaterako, Mapa Morea osatzeko prozesua, zeinaren konklusioek balioko duten etorkizunean garatu beharreko udal-politikak definitzen. Eta, beste hainbat prozesu: Ludoteka eta Gaztelekuaren beharren ikerketa, Estaziñoko parkearen zaharberritzea edota ikasteko gela eratu eta abian jartzera bideratu direnak, zeintzuen emaitzak begibistakoak diren gaur egun.

Eta, zela ez, nabarmentzekoa iruditzen zaigu Soraluzen LEHENENGO HERRI-GALDEKETA egin izana. Gainera, loteslea izan da, eta zehaztu du autobus geltokiaren kokalekua. Kontsulta honek aldatu du udal-politika egiteko eta herritarrak udalerriari dagozkion erabakietan inplikatzeko modua.

Horiekin batera, balioa eman nahiko genieke agintaldian zehar gauzatutako bi ekintzari: Sologoengo Zentral Elektrikoa udalaren esku gelditzea eta abian jarrai izana Bake eta Elkarbizitza Mahaia, zeina osatzen duten herriko ordezkari politikoek. Uste dugu bide horretan pausoak eman behar ditugula, josten jarraitzeko guztion arteko konfidantza giroa, errepetuzkoa eta iraganerako itzulbiderik gabea. Zergaitik ez, beharrezkoa da iragana ezagutzea elkarrekin etorkizuna eraiki ahal izateko.

Amaitzeko, gure eskerrona adierazi nahi diegu udal-langileei eta orohar herritarrei, euren lan, ekarpen eta elkarlanik barik dena askoz konplikatuagoa zatekeelako. Eskerrik asko eta agur bat!

**Ezberdinon arteko paktuak ekarri duen aldaketak merezi izan du**

**Creemos que el cambio que ha supuesto este pacto ha merecido la pena**

La legislatura llega a su fin y es el momento de hacer balance. Y, para los dos partidos que formamos el equipo de gobierno, éste es positivo. Podemos señalar que hemos pasado de las palabras a los hechos. Siempre hay cosas que se pueden mejorar, pero creemos que el cambio que ha supuesto este pacto entre diferentes ha merecido la pena, al hacer posibles cuatro años de estabilidad política y presupuestaria en Soraluze.

Ha sido una legislatura centrada en el desarrollo e impulso de los servicios e infraestructuras municipales y en la búsqueda de acuerdos con otras instituciones (Gobierno Vasco, Diputación Foral de Gipuzkoa...).

Los resultados de estos acuerdos y gestiones supramunicipales son evidentes y en las siguientes páginas se realiza un detalle de los mismos. Es importante destacar que el importe total de recursos económicos obtenidos durante esta legislatura vía subvenciones y ayudas **asciende a más de 2.092.934 €.** Estos recursos nos han permitido planificar y ejecutar proyectos que, en solitario, no hubiéramos sido capaces de acometer por no tener capacidad económica suficiente.

En estos cuatro años también se han puesto en marcha numerosos procesos de participación ciudadana. Procesos, como el Mapa Morado, cuyas conclusiones servirán para orientar y definir las políticas municipales a realizar en un futuro. Y, procesos, como el Estudio de necesidades de la Ludoteka y Gazteleku, el de renovación del Parque de la Estación o el de creación y puesta en marcha de la nueva aula de estudio cuyos resultados ya son visibles a día de hoy.

Y, cómo no, también nos parece destacable, la celebración de la PRIMERA CONSULTA POPULAR en Soraluze. Una consulta, de carácter vinculante, para determinar la ubicación de la parada de autobús. Una consulta que supone un antes y un después en la forma de hacer política local y de implicar a las y los soraluzetarras en la toma de decisiones de carácter municipal.

Queremos asimismo poner en valor otras dos actuaciones importantes de la legislatura: la municipalización de la Central Hidroeléctrica de Sologoen y la puesta en marcha de la Mesa de trabajo de Paz y Convivencia constituida por las y los representantes políticos de nuestro municipio. Creemos necesario dar pasos en este sentido para ir tejiendo entre todas y todos un clima de confianza, respeto y de no retorno al pasado. Porque, es necesario conocer el pasado para poder construir conjuntamente el futuro.

Para terminar, expresar nuestro agradecimiento tanto a l@s trabajador@s municipales como a la ciudadanía en general porque sin su trabajo, sus aportaciones y su colaboración todo hubiera sido mucho más complicado. ¡Muchas gracias y un saludo!



## Pascual Churruca lantegia eta haren lau partzelak bereganatu ditu Soraluzeko Udalak

Udalak 404 eurotan eskuratu ditu 860.831,4 eurotan baloratutako Pascual Churruca enpresa zenaren lau partzela, enkante publikoan. Lursail horiek estrategikoak dira herriko hirigintzaren garapenerako. Soraluzeko Egitamu Orokorrak dioenaren arabera, lursailok etxebizitzak eraikitzera bideratu beharko dira. Plana garatu bitartean, beheko solairua udal biltegi modura erabiltzen dihardu Udalak.

## Adquisición de la empresa Pascual Churruca y sus cuatro fincas correspondientes

El Ayuntamiento ha adquirido la antigua empresa Pascual Churruca y sus cuatro fincas valoradas en 860.831,4 euros por 404 euros en una subasta pública. El Ayuntamiento aprovechó la ocasión que se le presentaba para hacerse con unos terrenos de vital importancia para el futuro desarrollo urbanístico del municipio. Según el Plan General de Ordenación Urbana esas parcelas se deben destinar para construir viviendas.



**Gipuzkoako Foru Aldundiaren 424.366 euroko inbertsioari esker** herrirako hegoaldeko sarreran biribilgunea egin da, inguru horretan trafikoa murriztuz herrira datozen ibilgailuei sarbidea erraztuz.

Gracias a la **inversión de 424.366 euros realizados por la Diputación Foral de Gipuzkoa**, se ha podido construir la nueva rotonda de Hirukurutzeta, que además de reducir el tráfico de esa travesía tan limitada ofrece más opciones a los vehículos cuyo origen-destino sea el municipio.



Ezoziko Futbol Zelaira doan errepidea argiztatu dute, Ezozi auzoko bizilagunen eta futbol zelaiko erabiltzaileen aspaldiko eskaerari erantzunez. **Gipuzkoako Foru Aldundiarengandik lortu du Udalak inbertsioa: 38.971,67 euro.**

Se ha iluminado la carretera de acceso al campo de fútbol de Ezozia; dando respuesta a una histórica reivindicación de la ciudadanía. Se ha realizado gracias a la **inversión de 38.971,67 euros de la Diputación Foral de Gipuzkoa.**



Olaldeko Plan Berezia onartzeko bidean da. Egitamu Orokorraren baitan, ingurua zeharo eraberrituko da, pabiloi zaharrak botaz eta etxebizitzak eta aparkaleku publikoak egokituz. Santa Ana eta Estaziñoa lotzeko igogailua ere aurreikusten da.

El Ayuntamiento ha iniciado los trámites de aprobación del Plan Especial de Olaldea. Dicho plan recoge las características del futuro desarrollo arquitectónico de la zona, su total transformación, sustituyendo los usos existentes por el residencial.



Atxuri kaleko 21 zenbakia bota da, 48.400 euro bideratuta. Horixe da, etorkizun batean, ibaiaren alde biak elkartuko dituen pasabide berria eraiki ahal izateko lehen pausoa, Olaldeko Plan Bereziaren barruan.

Se ha demolido el inmueble situado en el número 21 de Atxuri kalea, con un gasto de 48.400 euros. En un futuro se prevé construir una pasarela que enlace las dos orillas del río, tal y como se recoge en el Plan Especial de Olaldea. La nueva pasarela sustituiría al actual Puente de Errekalde.



Hainbat txakur-jaberen eskaera aintzat hartuta, Atxurin txakurrendako parkea egokitu dute, bertan solte ibil daitezen. 500 m² ditu, txakurrak jolasean ibiltzeko kulunka eta salto egiteko beste gailu bat, eta baita haien kakak batzeko poltsak eta zakarrontziak ere. 3.000 euro kostatu da.

El Ayuntamiento ha habilitado un nuevo parque para perros en Atxuri. La instalación de 500 m² responde a las peticiones realizadas durante años por los dueños de estos animales. Ha supuesto una inversión de 3.000 euros.



Serafin Atxotegi kaleari izena aldatu zen eta Txurruken

Auzunea ipini zitzaion, bertako bizilagunen eskariz, Frankismoak eman zion-eta kaleari izena. Plaka inauguratuta egin zuten aldaketa.

El Ayuntamiento de Soraluze acordó en sesión plenaria cambiar el nombre al Grupo Serafín Atxotegi, que pasó a denominarse Txurruken Auzunea. La petición para dicha modificación fue realizada por los vecin@s que no consideraban apropiado que una persona vinculada al franquismo diera nombre al barrio.



Bidegorriko 2.500 m$^2$-ko lursaila erosi die Soraluzeko Udalak 1.000 eurotan haren jabe diren Unamuno baserrikoei. Asmoa da bertan aisialdiko ibai ertzeko parkea eraikitzea.

El Ayuntamiento ha adquirido una parcela de 2.500 m$^2$ del bidegorri que da al río para la futura creación de un parque fluvial. La compra se ha efectuado por 1.000 euros a los propietarios de dicho terreno.



Soraluzeko Udalak hiru bideokamera instalatuko ditu herriko sarrera-irteeretan, Txurrukenen, Sagarrerrekan eta industrialdean. Kamerok ibilgailuen sarrera-irteerak zainduko dituzte, Udaltzaingoak herriko balizko lapurretei eraginkortasun handiagoz aurre egiteko.

El Ayuntamiento instalará tres cámaras de videovigilancia en las entradas y salidas al municipio; serán utilizadas para investigar los robos que pudieran producirse.



Herri-guneko ibilgailuen joan etorria erraztu, arindu eta udalerriari buelta osoa eman beharra ekiditeko Etxaburueta kalea bi noranzkotan ipini du Soraluzeko Udalak: astegunetan 05:00etatik 15:00etara eta asteburuetan 05:00etatik 13:00etara.

La parte baja de Etxaburueta kalea (tramo conocido como Goikokaleta) se habilitó en doble sentido de la circulación, al objeto de facilitar y agilizar la circulación de los vehículos dentro de la trama urbana, y así evitar tener que rodear todo el municipio como ocurría hasta entonces.



Errekalde kaleko 10. zenbakia lagapenez eskuratu du Soraluzeko Udalak. Eraikina bereganatzea erabaki du Udalak gunea zaharberritzeko interesa duelako.

El Ayuntamiento ha adquirido mediante cesión de los propietarios el inmueble del número 10 de la calle Recalde. El objetivo es derribar dicho inmueble, de cara a renovar el entorno.



## Soraluzeko Udalak hitzarmena adostu du SAPAko lehen eraikina lagapenez eskuratzeko

Gabolatseko zubi ondoan hasi eta SAPAren bulego orokorretaraino ailegatzen den eraikina lagapenez eskuratzeko hitzarmena adostu du Udalak SAPArekin. Helburua da hura bota eta bertan parkea egitea, Egitamu Orokorrean jasotako garapena gauzatzen hasteko. Udalak **175.000 euroko dirulaguntza jasoko du Gipuzkoako Diputazioarengandik**, parkearen proiektua garatzen hasi ahal izateko.

## Convenio con SAPA para la cesión al Ayuntamiento del primer edificio de la fábrica

Los actuales propietarios de SAPA han adquirido el compromiso con el Ayuntamiento para la cesión del primer edificio de la antigua fábrica de SAPA. Según el Plan General de Ordenación Urbana, la parcela de dicho edificio deberá de ser destinada para la creación de un parque público. **La Diputación de Gipuzkoa tiene apalabrada una subvención directa de 175.000 euros para comenzar con el proyecto.**

Soraluzeko Udalak Gipuzkoako Ur-Kontsorzioarekin zuen hitzarmena luzatu egin du 2024. urtera arte. Luzapen horri esker, **Gipuzkoako Ur Partzuergoak 93.000 euroko diru-sarrerak emango dizkio Udalari** udalerriko azpiegiturak erabiltzen lagatzearren.

Gipuzkoako Ur Kontsortzioa
Gipuzkoako Urak, S.A.

El Ayuntamiento de Soraluze ha prorrogado el convenio existente con el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa hasta el año 2024. Ello le reportará al consistorio municipal unos **ingresos adicionales de 93.000 euros por parte del Consorcio de Aguas de Gipuzkoa.**



## Errabal kalea plataforma bakarrean lagako da eta bertako azpiegiturak berrituko dira

Urbanizazio lanak egiten dabiltza Errabal kalearen 12. eta 29. atarien artean. Zorua altxatu, uren azpiegiturak egokitu, eta kalea tapatu ondoren, plataforma bakarreko tramua egokituko dute. 238.076 euroko inbertsioa egingo du Udalak. Helburua da plataforma bakarreko bidea eraikitzea, oinezkoei lehentasuna emanez eta herritar guztien irisgarritasuna bermatuz.

## Obras para la accesibilidad de Errabal kalea, y renovación de conducciones de aguas

Se están llevando a cabo las obras para la mejora de la accesibilidad de Errabal kalea, para construir una plataforma única creando una calle de convivencia, que de prioridad a los peatones y garantice la accesibilidad. Se han aprovechado las obras para renovar las conducciones de abastecimiento de agua y saneamiento. El Ayuntamiento hará un a inversión de 238.076 euros.



Atxuri kalea eta Soraluzeko zaharren egoitza lotzeko igogailua eraiki du Udalak 203.817,52 euroko inbertsioa eginez. Eusko Jaurlaritzak eman ditu 70.000 euro eta gainontzeko 133.817,52 euroak egoitzak berak ordaindu ditu. Igogailuak egoiliar eta herritarren egoitzarako irisgarritasuna hobetu du.

Se ha construido un ascensor para enlazar la calle Atxuri con la residencia para mejorar el acceso a la misma, con una inversión de 203.817,52 euros, **70.000 concedidos por el Gobierno Vasco y 133.817,52 por la propia residencia.**



Gabolats kaleko aldapatik Ezozibideko biribilgunerainoko tartea plataforma bakarrean ipini dute eta saneamendu hoditeria berritu dute aldapa hasieratik Ezozi bideko biribilguneraino. 36. atariko eskailera ere kendu egin dute eta aldapako baranda berritu. Horretarako 171.256 euro inbertitu dira.

Con el fin de crear una calle de convivencia dando prioridad a los peatones, reordenar la zona de aparcamiento y cumplir con la normativa de accesibilidad se urbanizó la calle Gabolats. También se llevaron a cabo trabajos de mejora de la red de abastecimiento. Para ello se ha realizado una inversión de 171.256 euros.



Udalak 24.875,49 euro bideratuko ditu Alejandro Calonge kaleko eskailerak kendu eta arrapala egiteko. Horrela, hobetu nahi da 1. eta 2. atarietarako irisgarritasuna.

Con el objetivo de mejorar la accesibilidad a los números 1 y 2 de la calle Calonge, se sustituirán las actuales escaleras por una rampa de acceso, con una inversión de 24.875,49 euros.



Denbora luzean urik gabe egon ostean, ura darie berriro ere Ipiñarrietako iturburutik edaten duten bost iturriei. Hodi zaharraren ordez berria ipini da; izan ere, ura zekarren hodia zuhaitzen sustraiz beteta zegoen eta ezinezkoa zen ura iturrietara iristea.

Tras largo tiempo secas, vuelve a brotar agua de las cinco fuentes que se abastacen del manantial de Ipiñarrieta. Se ha sustituido la vieja tubería que estaba obstruída por una nueva.



Soraluzeko Udalak karpa berria erosi du 18.800 eurotan, ikusita berau udalerriko ekitaldi mordoa egiteko erabiltzen dela.

El Ayuntamiento ha adquirido una nueva carpa por un coste de 18.800 euros, en vista del gran uso que se le da en infinitas actividades.



Soraluzeko Udalak zerbitzuetako lan-taldearentzako ibilgailu berria erosi du 9.000 euroan, karga handiagoak modu erosoagoan garraiatzeko eta efizientzian irabazteko. Aurrerantzean, udaleko zerbitzuetako brigadak bi ibilgailu izango ditu.

El Ayuntamiento ha adquirido un nuevo vehículo para la brigada municipal, con el que podrá transportar mayores cargas de una forma más cómoda y eficaz. El coste ha sido de 9.000 euros.



Bertako bizilagunek hala eskatuta, hainbat lan burutu ditu Udalak Baltegieta kalean. Lanon helburua da ibilgailuek atari pareetan ez aparkatzea eta oinezkoen segurtasuna bermatzea.

Atendiendo a la petición realizada por el vecindario, se han realizado varios trabajos de reordenar la calle Baltegieta kalea. El objeto de los mismso es garantizar las idas y venidas de los viandantes, además de evitar el estacionamiento de los vehículos delante de sus fachadas.



Euri-uren ondorioz Baltegieta kalean sortzen diren putzuak kentzeko lanak egin ditu Udalak. Izan ere, euriarekin, lantegiko errepide parean putzu handiak sortzen dira eta horrek zaildu egiten ditu Baltegieta eta Sagarrerrekako bizilagunek herrigunera egin behar izaten dituzten joan etorriak, ibilgailuak bertatik igarotzean oinezkoak zipriztindu egiten dituztelako. Lanotan, 4.860 euro gastatu dira.

Se han realizado trabajos para eliminar las balsas de agua que se crean en la recta de la Sapa cada vez que llueve. De esta manera, el Ayuntamiento atiende a las múltiples peticiones de los vecinos y vecinas de Baltegieta y Sagarrerreka, ya que las grandes balsas de agua y las salpicaduras del tráfico rodado condicionan sus idas y venidas al centro. Dichos trabajos han supuesto una inversión de 4.860 euros.



Tamaina handiko argazkiak baliatuta, argazki erraldoiak ipini dira udalerriko hainbat kokagune estrategikoetan antzinako Soraluze zelakoa zen erakusteko. Erakusketa Soraluzeko Udalak eta Kontrargi Argazki Kolektiboak landu dute elkarrekin.

Con el fin de mostrar cómo era Soraluze antiguamente, el Ayuntamiento junto con Kontrargi Argazki Kolektiboa han colocado varias fotos gigantes en puntos estratégicos de la localidad.

Udalak balkoi eta leihoetako lore-lehiaketa antolatu du azken hiru urteotan. Horren bitartez, Udalak lagundu nahi du berreskuratzen leiho eta balkoiak lorez hornitzeko ohitura, herriko bazterrak kolorez janztearekin batera.



## Herri-galdeketa egin du Udalak autobus geltoki nagusia non kokatu herritarrek erabaki dezan

Autobus geltoki nagusiaren etorkizuneko kokalekuari buruz herritarren artean sortutako debatea ikusita, Udalak herri-galdeketa loteslea eginez herritarrei hitza ematea erabaki zuen, geltoki nagusia non ipini aukera dezaten. 920 herritarrek parte hartu zuen udalerrian egindako estreineko galdeketan eta 668 boto eskuratuta, Zubi Nagusian ipiniko da geltoki nagusia. Egokitzapen obrak hasita daude.

## Se ha realizado una consulta popular para que los vecin@s decidan la ubicación de la parada

Ante la polémica generada por la ubicación propuesta para la parada del autobús, el Ayuntamiento llevó a cabo una consulta popular vinculante, la primera de la historia de Soraluze. Participaron 920 ciudadan@s y otorgaron 668 votos a la opción de colocar la parada en el Puente Principal. Tras dar a conocer el resultado a la empresa que está llevando a cabo las obras de Errabal ya han comenzado las obras.

El Ayuntamiento de Soraluze ha organizado durante estos tres años consecutivos un concurso de flores en balcones y ventanas. Con la celebración de dicho certamen se quiere recuperar la costumbre de adornar con flores los balcones y ventanas, a la vez de darle un poco de color al municipio.



Gabonetako motiboekin apaindutako balkoien eta leihoen lehiaketa antolatu du Soraluzeko Udalak bi urteotan Eguberrietarako. Lehiaketa horren bitartez, balioa eman nahi zaio balkoiak eta leihoak apaintzeak dakarren onura estetikoari.

El Ayuntamiento de Soraluze ha organizado por segundo año consecutivo un concurso de decoración navideña de balcones y ventanas. Mediante este concurso se pretende poner en valor el beneficio estético de la decoración de balcones y ventanas del municipio.



## Dolmenen Ibilbidea balioan jartzeko finantzazioa eta jarduerak handitu dituzte

Aurrerapauso ikusgarriak eman dira Dolmenen Ibilbidean, ekonomikoki eta jarduerei dagokienez. **Jaurlaritzak eta Diputazioak bideratu dituzte 110.641 euro** eta Elgoibarko, Bergarako eta Soraluzeko Udalek, berriz, 21.000 euro. Jarduerei dagokienez, Irukurutzetan eta Gizaburuagan indusketak egin eta Kerexetaegia Hegokoa trikuharria berreraiki da. Bisita gidatuak ere izan dira.

## Se han producido grandes avances para poner en valor el patrimonio de la Ruta de los Dólmenes

Destacan los avances tanto económicos como referentes a actividades para poner en valor la Ruta de los Dólmenes. Se han conseguido **110.641 euros del Gobierno Vasco y de la Diputación** y otros 21.000 euros de los ayuntamientos de Bergara, Elgoibar y Soraluze. En cuanto a trabajos realizados, destacan la reconstrucción del dolmen Kerexetaegia Hegokoa,y la excavación del dolmen de Irukurutzeta.

---



Bost edukiontzien sistema ezarri du Udalak, herritarrek hondakinak sailkatuta eraman ditzaten, birziklatze tasak hobetzeko. Bide beretik, garbi-gune txikia ipini da Erregetxean eta ugaritu egin dituzte pilak batzeko puntuak.

Con el fin de mejorar las tasas de reciclaje, se implantó el sistema de los cinco contenedores. Asímismo se instaló un minigarbigune para la recogida de residuos especiales en Erregetxe y se aumentó los puntos de recogida de pilas usadas.

---



San Andresko frontoian zaharberritze-lanak egin dituzte, 2000. urteaz geroztik egiteke zeudenak. Garbitu, margotu eta bernizatu egin dute. Baita elkarteko sarrera hormigonatu ere.

El frontón Munua de San Andres que se construyó en el año 2000, se ha ido deteriorando debido a la climatología, por lo que se hacía necesario proceder a realizar varios trabajos de rehabilitación, trabajos que no se habían llevado a cabo hasta esta legislatura.

---



Baserri auzoetan hobetze eta mantentze lan ugari egin dira: baserri-bideak hobetu eta konpondu dira Txurruka, San Andres, Irure eta Ezozi auzoetan: Uzkaten, Agarren, Barrenetxen, Ezoziko ermitarako aldapan...

Se han realizado diversos trabajos de mejora en los accesos de caseríos de los barrios de Txurruka Irure, San Andres y de Ezozi: en Uzkate, Agarre, Barrenetxe, en la ermita de Ezozi...

---



Legegintzaldia hasi zenetik, ia 9,5 hektarea lursail erosi ditu Soraluzeko Udalak Mendigainean, 34.141,22 euro inbertituz. Asmoa da apurka-apurka Karakate-Irukurutzeta mendi-lerroan dauden lurrak erosten joatea, mendi-lerroa balioan jartzeko eta babesteko. Ildo beretik, pagoak landatu dituzte.

Son ya 9,5 hectáreas de superficie los que ha adquirido el Ayuntamiento, con una inversión realizada de 34.141,22 euros. El objetivo es ir adquiriendo nuevas parcelas cada año, para poner en valor el cordal Karakate-Irukurutzeta, dado su valor paisajístico, mediambiental, ganadero y sentimental.

---



Sagarrerrekako putzura arteko bidea garbitu eta berreskuratu da, auzolanean, Alkarrekineko Mendiak eta Ibaiak taldeak proposatuta.

Se ha recuperado y adecentado el camino hasta el pozo de Sagarrerreka, a propuesta del grupo de trabajo Mendiak eta Ibaiak, creado en el marco del proceso de participación ciudadana Alkarrekin Soraluze Eginez

---



Liztor asiarraren 56 habia deuseztatu dira lau urteotan, Gi-

puzkoako Aldundiarekin, Debemenekin, suhiltzaileekin eta basozainarekin elkarlanean, Helburua da Asiako liztorra desagerraraztea.

En los cuatro años de legislatura se han destruido 56 nidos de avispas asíaticas, en coordinación con la Diputacióna, Debemen, los bomberos y el guardabosques.



DEBEMENek traktore berria erosi du, elkarteko sei udalerrietako baserri bideak eta landa-ingurunea garbitu eta mantentzeko.

DEBEMEN ha adquirido un nuevo tractor para la limpieza y desbroce de los caminos y el entorno rural en los 6 municipios que forman parte de la asociación.



Askabeittiko iturrian hainbat lan burutu ditu Udalak, landaguneko iturriak berreskuratzeko eskuartean darabilen ahaleginaren barruan. Iturria inguratzen zuten sasiak kendu dituzte, iturria bera konpondu eta margotzearekin batera. Bestalde, helburu berarekin, Manditurriren jabetza eskuratu du Udalak.

El Ayuntamiento ha llevado a cabo distintas obras de mejora en la fuente de Askabeitti, dentro del programa para la rehabilitación de fuentes en el entorno rural. Con el mismo fin, el Ayuntamiento se ha hecho con la adquisición de la fuente de Manditurri.



Zuhaitz Eguna berreskuratu da, parte-hartze handiarekin. Azken bi ediziotan, esaterako, 70 herritarrek parte hartu dute, tartean gaztetxo ugarik. Basoen onurak balioan jarri eta helarazi zaizkie Zuhaitz Egunari esker herritarrei, mendian bertako espezieak birlandatzeaz batera.

Se ha recuperado el Zuhaitz Eguna o Día del Árbol, con gran participación ciudadana. En las dos últimas ediciones han participado unos 70 ciudadan@s, sobre todo niñ@s. Gracias al Zuhaitz Eguna se han puesto en relieve los beneficios de los bosques, además de repoblar el monte con especies autóctonas.



SEUR Fundazioak eta Soraluzeko Udalak Lankidetza Hitzarmena sinatu dute, udalerrian plastikozko tapoiak biltzeko eta ondoren haiek birziklatzeko.




## Sologoen Zentral Hidroelektrikoaren jabetza eta kudeaketa osoa eskuratu du Udalak

Sologoen Zentral Hidroelektrikoaren jabetza eta kudeaketa eskuratzeaz aparte, 2018an 78.230 euro inbertitu zituen zentralaren errentagarritasuna hobetzeko eta 2019an, 40.000 euro gehiago. Zentralaren mantenu, kontserbazio eta ustiapenean laguntzeko zerbitzuaren kontratua Barbo Renovables S.A. enpresari esleitu dio. Horrez aparte, bisita gidatuak egin ditu eta 61 lagunek parte hartu du.

## El Ayuntamiento quedó como propietario único de la Central Hidroeléctrica de Sologoen

Tras quedar como propietario único de la Central Hidroeléctrica de Sologoen, el consistorio ha apostado por continuar con la producción de energía electrica en la central, destinando en inversiones 78.230 euros y 40.000 euros en los años 2018 y 2019 respectivamente. Asímismo ha adjudicado los servicios de mantenimiento y gestión a la empresa Barbo Renovables. Y ha organizado visitas guiadas.

Convenio de colaboración entre la Fundación SEUR y el Ayuntamiento de Soraluze, para la recogida de tapones de plástico para su reciclaje en el municipio.



Trenbide zaharreko pasealekuari eusten dion horma egonkortzeko lanak egin ditu Soraluzeko Udalak Ezozibiden, bertan gertatzen diren lur eta harri jausiei konponbidea emateko. 16 mm-ko metalezko sare elastikoa jarri dute, hormara buloi bidez lotuta. 12.286 euro kostatu dira konponketak.

El Ayuntamiento ha realizado trabajos de estabilización del talud que sostiene la antigua plataforma del ferrocarril en Ezozibide, con objeto evitar los desprendimientos de tierra y rocas continuos. Se ha colocado una malla metálica de alto límite elástico, con doble cable de refuerzo de 16mm, anclada al talud con bulones. El coste total de las obras ha ascendido a 12.286 euros.



## Solairu bat gehituko zaio kiroldegiari, espazioaren arazoari konponbidea emateko

Solairu bat gehituko zaio kiroldegiari, honen espazio gabezia konpontzeko. Solairu berriak espazio gehiago eskainiko die kiroldegiko ia 1.000 bazkideei. Hain justu, udalerriko kirol eta kultura elkarteen eskariei erantzuteko egingo dira lanak. **568.000 euroko inbertsioa bideratuko da; erdia Gipuzkoako Foru Aldundiak ordainduko du** eta beste erdia Udalak.

## Se realizará una ampliación del polideportivo Arane, levantando una nueva planta

A fin de solucionar los problemas de espacio existentes en el Polideportivo Municipal, se prevé levantar una nueva planta en la terraza. Ello contribuirá a crear nuevos espacios de uso destinados a los casi 1.000 abonados con los que ya cuenta las instalaciones deportivas. Para realizar la ampliación, **se destinarán 568.000 euros, la mitad se los c uales los abonará la Diputación** y la otra mitad el Ayuntamiento.

---



Herriko Antzokiko komunetan etengabeak izan diren arazoak konpontzeko hainbat lan burutu ditu Udalak; komunak egin ziren garaitik zetozen arazoak.

El Ayuntamiento ha llevado a cabo trabajos de reparación en los baños del Herri Antzokia a fin de solucionar los continuos atascos que desde su construcción se producían.

---



Kiroldegia handitzeko proiektuaz aparte, legegintzaldian Soraluzeko Udalak 188.834 euro inbertitu ditu barruko zerbitzuetan: aparailu berriak erosi, sarrera berritu, material berria erosi, itoginak eta hezetasunak konpontu, eta beste hainbat lan egiteko. Horrekin batera, kontratua berritu zaio kiroldegia kudeatzen duen enpresari.

Además del proyecto de ampliación para el polideportivo municipal, durante esta legislatura el Ayuntamiento ha realizado inversiones que ascienden a 188.834 euros que se han destinado a la compra de nuevo material, arreglo de goteras y humdades, adecuación de la entrada y demás. En cuanto a la gestión de las instalaciones municipales, el consistorio a renovado el contrato con la empresa actual.

---



Euskadiko Boxeo Txapelketa jokatu zen Soraluzen Euskadiko Boxeo Federazioak eta Neskabox Elkarteak antolatuta. Udalak laguntza eman zuen.

Organizado por la Federación Vasca de Boxeo y el Club de Boxeo Neskabox y con la colaboración del Ayuntamiento, se celebró en Soraluze el Campeonato de Euskadi de Boxeo.

---



Ezoziko Futbol Zelaiko aldageletako teilatua zaharkitua dago eta, ondorioz, itogin eta hezetasun arazo handiak sortzen ziren. 14.000 euroko inbertsioa egin du Udalak, eta teilatua osorik inpermeabilizatu da.

Debido a que la cubierta de los vestuarios está completamente deteriorada, las goteras y humedades eran una constante. Por lo cual, el Ayuntamiento consignó una partida de 14.000 euros para acometer los trabajos de impermeabilización.

---



Soraluzeko Udalak bizikletak garbitzeko gune berri bat jarri du bidegorriaren sarreran, mendi bizikletan ibiltzen diren herritarrek erabil dezaten. 600 euro kostatu da zerbitzu berria. Honenbestez, bi dira gaur egun herrian dauden bizikletentzako garbitokiak: jarri berri den hau eta joan zen urteko urrian kiroldegian zabaldu zena.

El Ayuntamiento de Soraluze ha habilitado un segundo lava-bicis en el bidegorri, atendiendo a la solicitud realizada por practicantes de este deporte. Se ha destinado una partida de 600 euros. De esta forma, son ya 2 los lava-bicis con los que cuenta el municipio.

---



Ascensio Gurrutxaga, herriko abade eta organista izan zena

omentzeko erakusketa eta kontzertua egin ziren, haren lagunek eta Udalak antolatuta. Ezoziko Ama abesbatzak, hainbat belaunalditako txistulariek eta Iñigo Alberdi organojoleak eskaini zuten kontzertua.

Se llevaron a cabo una exposición y un concierto para homenajear al que fuera organista y coadjutor de Sta. Maria la Real Don Ascensio Gurrutxaga, cuyo legado ha sido donado al pueblo de Soraluze. El concierto, contó con la participación de La Coral Ezoziko Ama, la Banda de Txistularis y el organista Iñigo Alberdi.



Tere Guenetxeak eta Leire Gineak Deba ibaiari buruzko testigantzak biltzen dituen ikusentzunezkoa prestatu zuten. Birritan proiektatu da berau antzokian. Proiektua Alkarrekin Soraluze Eginez ekimeneko Mendiak eta Ibaia lantaldeak egindako lanen barruan dago. Asmoa izan da ibaiaren gaineko memoria kolektiboa jasotzea. Eta erakusketa ere egin zen, Deba ibaian jaso eta erregistratutako uraren soinuak eta ibaiari lotutako bestelako kontuak entzuteko eta ikusteko.

Tere Guenetxea y Leire Ginea elaboraron un audiovisual que recoge testimonios sobre la relación de los habitantes de la villa con su río. Se realizaron dos proyecciones. También se realizó una exposición, que hace un recorrido por los sonidos de las aguas del río deba, además de ofrecer información complementaria sobre el propio río.




Udalerri inklusiboagoa lortzeko Soraluzeko Mapa Morea prestatu da, parte-hartze prozesua baliatuta. Udalerria genero ikuspegitik aztertu eta herritar guztien eskura egongo diren espazio publikoak bermatzeko helburuarekin landu da ekimena.

El Ayuntamiento ha elaborado el Mapa Morado, resultado de un proceso participativo con el fin de analizar el municipio desde la el espacio, la ordenación, la forma y la definición de las ciudades tiene mucha influencia en la vida diaria de las personas y es necesario garantizar la seguridad, la movilidad, la accesibilidad y los trabajos de cuidado.



2015-2018an %9 handitu da udalerriko II. Berdintasun Planerako eta bertan aurreikusitako jarduerak gauzatzeko aurrekontua. Eta handitu egin dute ere berdintasun teknikariaren lan jarduna.

Aumento presupuestario para subvenciones y actividades para fomento de la igualdad y desarrollo del II Plan de Igualdad 2015-2018 de un 9%. Y aumento de horas de deicación de la técnica de igualdad.



Udalak hezkidetza sustatzen duten ipuin eta liburuen gida banatu du; gida Udal Liburutegiak eta Berdintasun Zerbitzuak osatu dute elkarlanean. Haurren eta gazteen irakurketa heziketarako tresna indartsua dela kontuan izanik, ekarpena egin nahi zaio berdintasunean, autonomian, dibertsitatean, errespetuan eta askatasunean oinarritutako gizarte bat sortzeko ahaleginari

El Ayuntamiento ha editado una Guía de cuentos y libros que fomentan la coeducación; es fruto de la colaboración entre el Dpto. de Igualdad y la Biblioteca Municipal. El objetivo es dar a conocer, el material existente en la biblioteca que trabaja valores, actitudes y modelos de referencia personales y colectivos relacionados con la igualdad y la diversidad.



## Hiribildu gutuna jaso zeneko 675. urteurrena ospatzeko ekitaldiak antolatu ditu Udalak

Iaz bete ziren 675 urte Soraluzek hiribildu gutuna jaso zuela. Urteurren horren harira, Udalak hainbat ekimen antolatu zituen. Oso jendetsuak izan ziren, adibidez, Javier Elortza historialariak XV. mendeko Soraluzeri buruz eta Plaza Berriko iturriari buruz egindako hitzaldiak. Eta arrakastatsua izan zen ere *Soraluze atzo eta gaur* erakusketa, Kontrargi Argazkilaritza Kolektiboak antolatu zuena.

## Conmemoración del 675 aniversario de la otorgación de la Carta Puebla a Soraluze

